

Gure parte hartzailekin harreman pertsonala izango genuke, modu presentzian, hau da, eguneko zentroaren bidez haiekin uneoro egongo ginateke harremana estutzen. Zuzenean beraiekin lan egiteak erreztasun handia ematen digulako gure proiektua aurrera eramaterako orduan eta harremana askoz hobeagoa izango litzateke.

Partehartzailei proiektua aurkezteko gure xedean bilduko ginateke, haiek gure eguneko zentrori hurbilduko lirateke eta bertan, aurrez aurre azalduko genieke gure proiektuaren funtzionamendua. Besteengan konfiantza izan behar dugu erabiltzaileengan eta proiektuan parte hartzen duten pertsonengan (langileak...) kalitatezko enpresa bat sortu ahal izateko eta guztion artean harreman sendo bat lortzeko.

Hortaz gain, bezeroak pozik eta gustura mantentzeko, haiekiko konpromisoa funtsezkoa ikusten dugu eta gure balioekiko leial jokatuko genuke hau da leial mantendu eta gure balioak bete, kontuan izan gure enpresa pertsona batzuen oinarrizko beharrak asetzeko sortu dela, eta ez dirua lortzeko edo aberasteko, guztiontzat eskuragarri dela jakiteko.

Azkenik haien gustuak, ilusioak eta abar kontuan hartuko genituzke harremana sendotzeko, gauzarik garrantzitsuenetako bat iruditzen zaigulako eta modu horretan haiei egokituko ginateke. Horretarako, galdetegi bat sortu dugu, erabiltzaileengana hurbiltzeko asmoz, haien gustuak kontuan hartuta, bai eta informazioa biltzeko ere, gure programa pertsona horien errealitatera egokitzeko. Erabiltzaile berri bat etortzerakoan egingo da normalean.

Galdetegia:

1. Nola deitzen zara?
2. Zelakoa izan da zure eguna?
3. Nolakoa zara? (nola ikusten duzu zure burua).
4. Ditzun ezaugarri guztien artean, zeintzuk dira gehien gustatzen zaizkizunak?
5. Zer duzu gustuko?
6. Nola ikusten zara urte batzuk barru?
7. Laguntza behar duzu zure emozioak/sentimenduak adierazteko?

8. Badakizu zein jardueratan parte hartu dezakezun?

9. Zein jardueratan parte hartu nahiko zenuke?

10. Ikasketak dituzu? Ikastea nahiko zenuke?